



EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 13koa, Hezkuntza sailburuordearena eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan 2010-2011 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskola-egutegiak, 2010-2011 ikasturtekoak, ondoko arauari jarraituko die:

1.- Ikastetxe publikoetako irakasle guztiak ikastetxera irailaren 1ean sartuko dira, 2010-2011 ikasturteko hasieraren jarduerak egiteko. Irakas-jarduerak ezingo dira 2010eko irailaren 7a baino lehen hasi. Lehenengo irakas-eguna 2010-2011 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabili ahal izango da, eta hurrengo eguna klaseak emateko egun efektiboa izango da.

Beranduen jota ere, ekainaren 23an bukatuko dira 2010-2011 ikasturtearen irakas-jarduerak, eta egun horretatik ekainaren 30era bitarte ondoko lanak burutuko dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aparteko deialdiko azterketak, ikasturtea aztertu eta ebaluatzeko berariazko lanak, programazioak, urteko memoria, eta egin beharreko administrazio ekintzak. Uztailean ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek euren karguen zereginak bete beharko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

2.- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** etapan ikasleek 1050 irakastordu jasoko dituzte gutxienez, 175 irakastegunetan banatuta. Aparteko deialdiko azterketak ikasturtearen azken irakastegunetik ekainaren 30era egingo dira, 175 eskola-egunak bete ondoren.

2010eko irailean eta 2011ko ekainean goizez bakarrik eskola guztiak emateko aukera izango da.

Aipatutako egunetan izan ezik, ikasturtean zehar goizez eta arratsaldean emango dira eskolak; baina asteko arratsalde batean klaseak kendu ahal izango dira, irakaslegoaren prestakuntzarako iharduerak egiteko. Horretaz aparte, beste arratsalde batean ere eskolarik ez izatea erabaki dezake Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG). Horretarako beharrezko izango da 2/3eko gehiengo koalifikatua, OOGn ordezkatu dauden estamentu bakoitzean (gurasoak, ikasleak eta irakasleak). Eskolarik gabeko arratsaldeak direnak direla, ordutegiak egokitu egin beharko dira, asteko 30 eskola-saio eman ahal izateko.

Eskolak goizez bakarrik ematen diren egunetan eskola-saioak 50 minutukoak izango dira gutxienez. Egun horietan izan ezik, eskola-saio guztiak 60 minutukoak izango dira.



DBH eta Batxilergoa irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko zenbait klaseren iraupena murriztu beharrean baldin badago, klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izateko hautua egin ahal izango dute, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan. Beste edozein egoeratan ez da onartuko klaseetako iraupena 55 minutukoa izatea.

3.- **Batxilergoko** etapan, ikasturteak gutxienez 175 irakastegun izango ditu, eta horietatik 160, gutxienez, benetako eskola egunak. Eskola saio guztiak 60 minutukoak izango dira, egunean 7 eskola saio irakasten direnean izan ezik eta DBH eta Batxilergoko ordutegiak koordinatzeko eskola-saioen iraupena murriztu behar den kasuetan izan ezik. Kasu horietan klase bakoitza 50 minutukoa, gutxienez, izango da. Irailean eta ekainean izan ezik, ezin izango da astean bi egun baino gehiago egon 60 minutu baino gutxiagoko eskola saioekin.

DBH eta Batxilergoa irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko zenbait klaseren iraupena murriztu beharrean baldin badaude, klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izateko hautua egin ahal izango dute, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan. Beste edozein egoeratan ez da onartuko klaseetako iraupena 55 minutukoa izatea.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumetan aurrekusi diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezzen, baita ekainean eta irailean ere.

160 egun horietako bakar batean ere ezingo zaio eskola emateari utzi azterketak egiteko, ezta ebaluazio bilerak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

4.- Batxilergoan 2010-2011 ikasturtearen ohiko klaseak maiatzaren 24an bukatuko dira; maiatzaren 25etik ekainaren azken irakastegunera bitartean, (biak barne), honako jarduera hauek egiteari ekingo zaio:

- Ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.

- Selektibitateko azterketa eta ez-ohiko deialdiko probak prestatzeko eskolak ikasleei ematea. Ez-ohiko deialdiko probak prestatzeko eskoletan derrigor hartuko dute parte gainditu ez duten ikasleek, eta gainerakoek nahi badute. Edonola ere, bai eskola horien bidez, bai antolatuko daitezkeen beste eskola edo jarduera alternatiboen bidez, ikastetxeek bermatu egin behar dute Batxilergoko bi mailetako ikasleek benetan, eta gutxienez, 2008ko martxoaren 10ko Aginduak zehazten dituen 160 eskola egun efektiboak izango dituztela.



- Ez ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.

Ohiko eta ez ohiko deialdien probak eta azken ebaluazioak egiteko, notak emateko eta erreklamazioak erabakitzeke erabilitako egunak ez dira 160 benetako eskola egunen barruan sartuko, baina bai 175 ikasturtearen irakastegunen barruan.

5.- **Lanbide Heziketako** etapan, ikasturteak gutxienez 175 irakastegun izango ditu, eta horietatik 165, (33 aste), benetako eskola egunak. Eskola-saio guztiak 60 minutukoak izango dira, salbu Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ordutegiak koordinatzeko dagokion egokitzapena egin behar denean, 7 eskola-saio ematen diren egunetan. 165 egun horietako bakar batean ere ezingo zaio eskola emateari utzi azterketak egiteko, ezta ebaluazio bilerak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

2000 ordu baino gutxiagoko iraupena duten Heziketa Zikloetan, lehenengo kurtsoak gutxienez 175 irakastegun izango ditu. Bigarren kurtsoan Heziketa Ziklo bakoitzeko iraupena kontutan hartuko da egutegia ezartzeko. Halaber, egutegiak bermatu behar izango du dagokion curriculumak xedatzen duen arauak ezarritako ordutegi osoa ikasle guztiei ematea.

Nolanahi ere, ohiko deialdiko probak, azken ebaluazioak, erreklamazioak egin eta notak eman ekainaren 9a baino lehen egingo da; ez-ohiko deialdia, berriz, ekainaren 30a baino lehen.

6. Ezinbesteko kasuren batengatik eskola ordu kopurua murriztuz gero, egutegia egokitu egingo da, ezarritako eskola egunak ematea lortzeko, beti ere langileen lan eskubideak errespetatuz.

Nahiz eta ikasleek –banaka zein taldeka- parte ez hartu, ikastetxeek eskolak eman egingo dituzte, ordutegi ofiziala errespetatuz.

Egutegia egokitu behar izanez gero, hasierako prozedura –egutegia finkatzeko erabilitakoa- bera erabiliko da, eta hori ez badu gobernu organo eskudunak egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatuko du egutegia egoki dezaten. Eskaera horri erantzun ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egokituko du egutegia eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

7.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.



Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute maila jakin bateko zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Halaber, nahi izanez gero, ikastetxean irakasten diren maila ezberdinen zaindarien jaieguna egun bakar batean ospatu ahal izango dute. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

8.- Eguberriak oporraldiak 2010eko abenduaren 24tik 2011ko urtarrilaren 6rarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2011ko apirilaren 21etik 25era bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

9.- Eskola egutegiaren proposamena tramitzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Ikastetxeetako zuzendariak hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena igorriko dute dagokien Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara, eskuduna den gobernu-organoak hori onetsi zuen bilkurako aktaren kopia erantsiz. Eskola-egutegiaren proposamena eta aktaren kopia igortzeko epea 2010eko ekainaren 11an bukatuko da.

Ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako espreski diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz egin behar dute proposamena, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dien argibideak jarraituz.

Egutegi proposamena ikastetxeko O.O.G.k egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

Zenbait ikastetxek, garraioa edo jangela konpartitzen dituztenek, egutegi proposamen bakarra eta berdina egingo dute, inplikaturiko ikastetxe guztietako ordezkari organo gorenak onartuta.

10.- Ikastetxeren batek, finkaturako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariak egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 13a

HEZKUNTZA
SAILBURUORDEA

LANBIDE HEZIKETAKO ETA
ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
SAILBURUORDEA

Izp.: M^a Antonia Ozcariz Rubio

Izp.: David Urzainqui Urzainqui